

Pikotxean irakurtzeko hiru «liburu txiki handi»

Anjel Lertxundi, Koldo Izagirre eta Inazio Mujika Iraolaren lanak eman ditu argitara Ereinek, Olariagak, Irrimarrak eta Maite Gurrutxagak ilustratuak

NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Hitzak eta literatura ezinbestean lotuta badaude ere, badira hitz zehatz baten gainean eraikitako literaturaren inguruko proiektuak. Horietako bat da Erein argitaletxeak 2020an abian jarri zuen Pikotxean saila, hitzak berak zein adierazten duen jarrerak –kukubilko ere esaten zaio– eman baitzien haurrentzako sail bat sortzeko ideia.

Sailaren 5. 6. eta 7. liburua aurkeztean editore eta egile gisa mintzatu zen Inazio Mujika Iraolak azaldu zuenez, «pikotxean irakurtzeko tentsioa eskatzen du, horregatik egin ditugu liburu ez oso luzeak, ez oso laburrak, pikotxean irakurtzeko modukoak». Liburu «txiki handiak dira», berme oso idazle eta ilustrazileen arteko «hiru ezkontzatatik» sortuak. Bi kasutan, sailaren irudiko, hitz banaren gainean eraikiak.

Bikote horietako bat, Anjel Lertxundik eta Antton Olariagak osatzen dutena, aspaldikoa da. Oraingoan 'Botoitxo' ekarri dute. Koldo Izagirre eta Irrimarra ere aritu izan dira bikotean –hirukotean, hobe, bi kide baititu Irrimarrak, Irene Irureta eta Karmele Gorroño–, baita Inazio Mujika Iraola eta Maite Gurrutxaga ere.

Hitzaren lilura

'Botoitxo' ez da Anjel Lertxundik sailerako idatzi duen lehen liburua. Baditu aurretik beste bi, 'Zakarruko' eta 'Donostian elefanteak ikusi zirenekoa', baina biak dira aspaldi argitaratuta zeuden lanen berrikuspenak. 'Botoitxo', berriz, berri-berria da, nahiz eta idazleak aspalditik zerabilen bueltara izenburu bilakatu duen hitza.

Lertxundiren ustez, alegia, literatura kontakizunekin egiten da, «baina baita ere hitzaren lilurarekin». Literatura oro har, bereizkeriarik gabe: «Haur literatura literatura da, bere ezaugarri propioekin, baina artea izateari utzi gabe. Horrek esan nahi du haurrentzat egokia dena helduentzat ere badela, haur literatura asko helduek irakurtzeko moduko delako, eta berdin-berdin funtzionatzen du helduen artean ere» esan zuen Lertxundik.

«Gizon botoitxo» esaera entzun zuenetik «gizon txapal eta txiki» bat deskrikatzeko, 'botoitxo' hitzak zeukan liluratuta idazlea. Ipuin berri bat eskatu ziotenean ez zuen dudarik izan: «Buruan bueltara nerabilen 'botoitxo' hura etorri zitzaidan, eta sortu zitzaidan kajoiez betetako eta botoiez jositako mertzeri bat zeukan ema-



Inazio Mujika Iraola, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga, liburuak aurkeztu zituzten eguneko argazkian. E.A.

HITZEZ HITZ

Anjel Lertxundi
idazlea

«Haur literatura asko helduek irakurtzeko moduko da, berdin-berdin funtzionatzen du helduen artean ere»

Koldo Izagirre
idazlea

«Idazleok idazteko askatasuna badugu, ezin dezakegu irakurketa derrigorrezko betebeharrak moral bihurtu»

kume bat. Hitz batetik sortu zitzaidan hori guztia, eta hortik harilkatu nuen ipuina».

Botoitxo esaten dioten emakumearengana joatea eta jostea asko gustatzen zaion mutil koskor bat ere badago, eta giltzaz itxita egoten den kajo batean gordetako sekretua, gordeta hobe zegoena agerian

baino, «tragedia bilakatzeko baita mutikoa lotsagabea izan delako eta giltzari emateko tentazioa izan duelako».

Denda bera ere bada protagonista Antton Olariagren marrazkiei esker, ohi duen moduan idazleak sortutako istorioari beste ikuspegi batetik begiratu baitio, marrazkien bitartez. «Anttoni asko zor diot. Neuk idatzi dudana istoriari beste alde batetik begiratzeko gaitasuna ematen dit, testuaren beste perspektiba bat, nik neuk ikusi ez dudana. Urtetan hori praktikatu berarengandik ikaragarri ikasi dut», esan zuen.

Irakurketaren inguruan

Erronka gisa planteatu zioten Koldo Izagirreri 9.000-10.000 karakteretan istorio bat gara zezan, tentsio eta intrigaduna. 'Irakurtzen ez zekien zakurra' sortu zuen. «Bi protagonista nabarmen ditu, Naroa neskatoa eta zakurra, eta protagonismo ezkutu bat dute liburuek. Kontakizunaren oinarria dira, liburuen presentziarik gabe ez nukeen kontaktu ahal izango istorio hau», esan zuen Izagirrek.

Naroaren gurasoen obsesioetako bat, guraso askorena, alabak liburuak irakur ditzan lortzea da. Naroak, baina, pixuzko arrazoiak ditu liburuak gogoko ez izateko. Irekitzen ditu, baina ez ditu irakurtzen. Gehiago gustatzen zaizkio kalean erantsita dauden paperak, eta halako batean aurkituko du zakur baten desagertuaren berri ematen duen bat.

Naroari bururatu zaio zakurra «ez dela galdu, iheska dabilela, eta bila hasten da. Ez du aurkitzen. Hori bera izan zitekeen intriga handiko abentura, baina ez da kasua –argitu zuen idazleak–. Hala ere, azkenean topo egingo du zakurrarekin, edo zakur hori dela uste duen animaliarekin».

Zakurraren inguruko istorioaren bidez irakurketa derrigorria dela eta gurasoen eta haurren artean sortzen den talka islatu du Izagirrek, besteak beste. Ustezko arazo horri ematen zaizkion ustezko irtenbideak ere izan zituen hizpide aurkezpenean: «Idazleok idazteko askatasuna badugu, ezin dezakegu irakurketa derrigorrezko betebeharrak mo-

ral bihurtu, ez genuke hartu beharko hartzen dugun bezala».

Beldurraren hazia

'Marrakatxarra' ere hitz berezi batetik sortutako ipuina da. Inazio Mujika Iraolak oso hurbilekoa duen hitz batetik, etxean erabiltzen baitzuten, seme-alabak txikiak zirenean, beldurrak uxatzeko.

Hiru liburuak aurkeztu ziren Donostiako Liburutegi Nagusitik oso hurbil bizi izan zen «idazle handi bati», Ander Arzelusi (Donostia, 1898-Baiona, 1949), mailuan hartutako hitza da. Haurrak beldur zirenean «hortza hortzari eman eta ireki gabe 'marrakatxarra' behin eta berriz esaten genuen, izu horiei aurre egiteko». Familian birizik jarraitzen duen ohituran oinarrituta sortu du «beldurraren hazia non dagoen» argitu nahi duen ipuina, 'marrakatxarra' hitzari «beste jokaleku bat» eman nahi izan diona.

Protagonista Ander izeneko haurra da. Egun batean, eskolatik bueltan, aita sukaldean ari dela, jolasean, hiru mandarinarekin malabarismoak egiten dituen bitartean gurasoen logelara iritsiko da, eta han ikusiko du, aitaren ordenadorearen mahaian, lehenago ikusi gabeko argazki bat. Gizon ezezagun bat, amona gaztearen eta aita haurren ondoan. Izua erango dio argazkian ikusi duenak. Beldur horri egin beharko dio aurre, alegia, eta jatorria non duen aurkitu.

BOTOITXO
ANJEL LERTXUNDI

Irudiak: Antton Olariaga.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 36 orr.
Salneurria: 10 euro.



IRAKURTZEN EZ ZEKIEN ZAKURRA
KOLDO IZAGIRRE

Irudiak: Irrimarra.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 40.
Salneurria: 10 euro.



MARRAKATXARRA
INAZIO MUJIKA
IRAOLA

Irudiak: Maite Gurrutxaga.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 56.
Salneurria: 10 euro.

